



Grebalari bat atxilotu du Ertzaintzak epaitegi aurrean egindako protestan

AITOR ASPURU SAEZ :: 17/06/2021

Atxilotu bat egon da protestan Amurrion

Gaur deklaratu behar zuten martxoaren 25eko piketea salatutako akusatuek eta epaitegiaren aurrean elkartasun protesta egin dute grebalariek. Ertzaintza bi aldiz oldartu da eta langile bat atxilotu du eta anbulatoria eraman behar izan dute.

Tubacex enpresako langilea atxilotu du Ertzaintzak Amurrioko epaitegiaren aurrean. Gaur zeuden deituak **deklaratzer**a 3 lagun martxoaren 25eko piketea parte hartzeagatik eta grebalariek elkartasun elkarretaratzea antolatu dute.

Testuinguru horretan, Ertzaintzak adierazi die langileei ezin zirela eraikinaren aurreko espaloian egon eta grebalariek ez dietenez kasu egin -maiatzean egindako protestan ez zen horrelako arazorik egon-, Brigada Mugikorra deitu dute agenteek. Brigada Mugikorra bi aldiz oldartu da protestaren kontra borrak erabiltzea, gainera, langile bat atxilotu du. Epaitegiaren eremuaren barruan izan dute poliziek eraman arte.

[twitter:twitturl:https://twitter.com/aiaraldea/status/1405481541409689603?ref_src=twsrc%5Etfw%7Ctwcamp%5Etweetembed%7Ctwterm%5E1405481541409689603%7Ctwgr%5E%7Ctwcon%5Es1_&ref_url=https%3A%2F%2Faiaraldea.eus%2Famurrio%2F1623926095401-grebalari-bat-atxilotu-du-ertzaintzak-epaitegi-aurrean-egindako-protestan-langileen-kontra-oldartu-ostean]

Hori baino lehen, hirugarrenez oldartu da polizia grebalariei kontra. Atxilotuak kolpeak jaso izan dituzte elkarretaratzean, anbulatorioan artatu behar izan dute eta oraindik poliziak ez du komisaldegira eraman.

[twitter:twitturl:https://twitter.com/maddisasi/status/1405471677736173571?ref_src=twsrc%5Etfw%7Ctwcamp%5Etweetembed%7Ctwterm%5E1405471677736173571%7Ctwgr%5E%7Ctwcon%5Es1_&ref_url=https%3A%2F%2Faiaraldea.eus%2Famurrio%2F1623926095401-grebalari-bat-atxilotu-du-ertzaintzak-epaitegi-aurrean-egindako-protestan-langileen-kontra-oldartu-ostean]

Bestalde, akusatuak deklaratu ari dira jadanik.

Aiaraldea Hedabideak gertatutako grabatu du eta laster bideoa plazaratuko du.

<https://aiaraldea.eus/amurrio/1623926095401-grebalari-bat-atxilotu-du-ertzaintzak-epaitegi-aurrean-egindako-protestan-langileen-kontra-oldartu-ostean>

<https://eh.lahaine.org/grebalari-bat-atxilotu-du-ertzaintzak>